

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak osasun-produktuen fakturak 57 egunetan ordaintzen ditu, gainerako erkidegoen batez bestekoa 284 egunekoa denean

Kutz kontseilariak osasun-gastuaren kontrolerako eredu nafarra azaldu du Madrilén

Martes, 14 de junio de 2011

Jarduneko Osasun kontseilari Maria Kutz Peironcelyk Nafarroan aplikatutako osasun-gastuaren kontrol-ildoak azaldu ditu gaur goizean, Madrilén, eta ildo horiei esker, osasun-zorrik gabeko erkidego bihurtu da. Kontseilariaren hitzaldia, Intereconomía Taldeak antolatu duen eta farmazeutikoa ez den osasun-gastuaren kontrolari buruzko jardunaldi baten barnean kokatzen da.

"Defizita gehien handitzen duten partidetan gastua nola arrazionalizatu: farmazeutikoa ez den gastua kontrolatzeko hartzea komeni diren neurriak" izena duen hitzaldian, kontseilariak azpimarratu du Nafarroa hornitzaileei ordaintzen denbora gutxien pasatzen duen erkidegoetako bat dela: 57 egun osasun-produktuetan (protesiak...); gainerako erkidegoetan, berriz, 284 eguneko batez bestekoa da, eta 42 egun botikak Farmaindustriari ordaintzeko, ospitaleko botiketean estatuko gainerako erkidegoetan 410 eguneko batez bestekoa duenean. Hori lortzeko, Maria Kutzek adierazi duenez, "Nafarroan gastua etengabe kontrolatzen da". Hala, "hilabete bakoitzean, urte bakoitzean eta otsailetik aurrera, gastua abenduaren 31rako proiektatzen da. Datuak hurrengo hilabeteko lehen 5 egunetan lortzen dira. Aurrekontu-kontrolaren diziplina horrek eta neurri zuzentzaileak hartzeak, beharrezkoa balitz, ekitaldiak desbideratze handirik gabe ixtea ahalbidetzen dute". Kontrolerako beste faktore bat materialak erosteko aurrekontu-saldoa izateko beharra da (protesia, osasun-materiala, laborategikoa...).

Gisa horretan, 2009 eta 2011 artean langileen gastua % 51tik % 48ra jaistea lortu da zenbait neurri zehatzekin: soldata % 5 murriztea, laguntza-jarduerarekin zuzenean loturik ez duten ordain aldagarriak murriztea; Iruñeko hiru ospitaleek bat egitea, horrek egituraren dakarren murrizketarekin; eta ordezkapen-jardunaldien kopurua % 3 murriztea.

Ondasun eta zerbitzuetan gastua kontrolatzeari dagokionez, gastuaren % 20 dena, prezioak inflazioaren azpitik igotzea lortu da, honako era honetan: hornitzaileekin eta lehiaketa berriekin negoziatuz; erosketak zentralizatuekin eta katalogo bakarrarekin; gastu handieneko zerbitzuekin `kontsumoko itunak´ abian jarritz; stock-ak murriztuz ospitaleen bat-egiteagatik eta energia-gastua murriztuz (geotermia bezalako sistemak erabiliz, Nafarroako Ospitale Guneke energiaren zati

bat kudeatzeko lehiaketaren bidezko esleipena eta gainerako energia-kontsumoaren prezioak enpresa hornitzaileekin negoziatzea).